

LAUAXETA EZ DA AIN ERDAL-BERTSOGILLE
TXARRA

Lauaxeta izan gendun idazlearentzat egun obeak argitzen asi dirala dirudi. Zorigaiztoko egun baltzetan gure literaturak ain gazterik galdu eban langille onen idazlanak bein eta barriro ikusten dabe argia. Eta ez bakarrik bertsozkoak, osteangoak be bai, eta azterketa sakontxo eta argigarriz ornidunk. Gaur, Villasantek bere *Literatura Vasca* liburuan emon eutsana baino izen obea artzen dauala esan geinke. Gaur ezingo dau ifiok esan Lauaxetak ez ebala euskal-literatura zarrrik ezagutzen. Gaur ez dau inok eskubiderik idazle au gai orretan gixajotzat artzeko, Aita Villasantek egin eban lez, «ai, Manterolaren *Cancionero Basco* irakurri baleu!» edo antzeko eztenkadatxoak botata. Euskera barri ta ulergatxa daukala? Salakuntza onek be ez ete dau indar apur bat galdu?

Orain dala zazpi bat urte, irakasle batek bere eskolako gazteai *Arratsberan* liburutik olerki bat irakurri ei eutsen. Ikasleen artean bazan Bizkaiko, Gipuzkoako eta Naparroako semerik. Eta entzun eben olerkiaren ederraz eta indarraz arriturik, eskuetatik kendu nai ei eutsen liburua irakasleari. Eurai ez jaken egin, ez, ain ulergatx. Eta egunotan irakurri dogu oraingo gazte bati egin jakon itauna: ia euskerazko idazleen artean zeintzuk irakurten dituen gogozen. Eta gaztearen erantzuna: Lauaxetaren edozer irakurten dauala gogoz.

Lauaxetaren gaurkotasunaren agergerri, ona azkenengo liburu bat, idazle onen olerki guztiekin jatorrkuna. Egilleak, Jon Kortazar eta Miren Billelabeitia. Kortazarrek, ganera, inprentan sartuta ei dauko bere tesi-lana, Lauaxetaren olerkiak eta literatur-balioak aztertzen dituen.

Eta ez oneik bakarrik. Aita Santi Onaindia be opari bardi-fiagaz jatorku, Lauaxetaren olerkiekin bigarren argitaraldia eskintzen deuskula, orain amaika urte eskini euskuna baino osoa-go. Ez da berau alperrik ibilli aurten ordu luzeak emoten, *Euzkadi* egunkaritik eta euskerazko aldizkarietatik Lauaxetak areitan zabaldu zituen bertsozko lan guztiak batzen, Lauaxetarenak berarenak eta erdal-izkuntzetatik euskeraratuak. Aita Onaindiak urte barruan lau liburu ateratea ez dau naikoa izan. Lan eta lan ebillen bosgarren au gabonetarako kalean ipinteko.

Ezin, ba, ukatu, Lauaxeta ezagutzeko era obeak izango ditugula gaur. Aren olerkien azterketa esku obetan dogula esan bear. Literatura-gaietan asko ikasia eta eskola onekoa zana errez autortzen deutoe gaur. Orain badakigu, eta aztertzaileak alan autortzen dabe, munduko literaturarik andienen, antzinako ta oraingoan, Grezia, Erroma eta Europakoen ezagutzaille ona genduela, eta literatura bakotxari bere guna aurkitzen ekienetako, gaiflera. Orain badakigu zelango asmoak erabillezan berak literatura guztietako lora ta olerki-tankerak gurearen baratzera aldatzeko. Lauaxetaren galtzeaz etenda gelditu ziran aren asmo ta ames eder guztiak. Lauaxeta galtzea ezin kaltegarriagoa izan zala gure literaturarentzat orain ulertzen dogu ondoen.

Antza danez, asita egoan bera agertu zituen asmo batzuk egitera eroaten, eta agindu zituen lan batzuk burutzen. Bat edo beste agertu da. Ez ete zituen geiago egin? Noren eskuetara joan ziran?

Geiagorik agertzen ez dan bitartean, lan ederra egiten dabe billatu alak billatu eta argitara emoten deuskuezanak. Lauaxeta obeto ezagutzeko, eta idazleari berea emoteko aukera ohea

emoten deuskue. Aukera auxe eskini guraz dator oraingo argitaraldi barrien eta azterketa zeatzen asmoa. Baina... baina bat ikusten dot argitaraldi oneitan, arifiegi, arrapazka lez eginak direala.

Utsez beterlko argitaramiak

Utsez beterik agertzen jakuz Lauaxetaren olerkiak tamalez. Ez deuskuez asko olerkariak berak egin zituen moduan emoten. Lauaxetaren azken orduetako olerkietan, ilteko epaia ganean eukaneko orduetakoetan ikusten dogu ori geien.

Norena da errua? Eskuz esku ibillian, kopiatzailleak egindako utsena da, nire ustez, lenengo errua. Orain dala-amazazpi-amazortzi urte, Bilboko Verdes-ek eukazan Lauaxetaren azkenengo bertsoak norbaitek argitaratzeko asmotan bialduta. Bcingoan irarkolan sartzeko asmotan ebiltzen, itzaurre bat edo beste ornidurik. Euskerazkoak eta erderazkoak. Bat be ez euken Lauaxetaren eskuzko letradunik; kopiak, besterik ez. «Kontuz, esan neutsan nik Verdes-i. Emen kontu andi bako eskuren bat ibilli da, eta kopiok ez dauke utsik gitxi. Lauaxetaren olerki geienok neure eskuetatik eldu ziran olerkariaren aitaren eskuetara, eta neuk daukat andik zuzen egindako kopia bat. Zuen kopiak esku-ikutu barri bat bearko dabe».

Orduko asmoa asmo utsean gelditu zan, porrot eginik, ETakoen burrukea berotu eta *Estado de exception* jarri ebanean. Nik ez dakit bildurrez, ala baimenik lortu eziefiez. Lauaxetaren euskerazko azken-bertsoak nire eskutik igaro zireana lendik be ezanik daukat ZER aldizkarian idatzitako artikulu baten 19'77ko zezeilleko zenbakian. Aita Sabino napar-karmeldarrak ekarri eustazan niri olerkariaren aitari eroan nengiozan, 1950 garren urte inguruan. Aita Sabino Leringo semea zan, eta literato samarra, erderazko liburu batzuen idazlea. Lauaxeta Gazteizko karmeldarretan militarrek euki eben bitarteanasi ziran bien arteko artu-emonak. Eta olerkariak praille napar orri itxi eutsazan bere azken orduetako euskal-poemak, al ebanean aitaren eskuetara bialtzeko. Aita Sabinok, Iruneko eta Gazteizko prailleen nagusi

izana bera be ez eban beingoan bete olerkariaren gogo. Andik lastertxo Chilera bialdu eben, eta andik itzuli zanean, 1950 inguruan, orduan etorri jatan bein Begonara. Lauaxetaren papera-kaz etorren. Bera erdaldun utsa izanik, lotsa zala Mungia Urkiagatarren etxera agertzen eta nik joan bear neban Esteban Urkiaga zanaren aitaren etxera semearen ilburukoa eroaten. Bat ez, besteak euskerazko bertsoak ziran. Batek bakarrik eroian titulorik: *Biotz Donea*. Beste guztiak, orain *Azken Oyua*k deritxan olerkiak, esaterako, izenik eta titulorik barik, sei zenbaki zituen: I, II, III, IV, V, VI, bederatzina bertsoetako sei estrofa, irugarretetik laugarrenera puntorik ez komarik barik. Aita Sabinok ago betean goratzen eban Esteban Urkiaga, Lauaxeta. Aingeru baten arimaduntzat eukan, eta literatura gaietan oso aitu eta bum bellarri sartutzat. Esan bearrik ez, olerkari martiriaren paperak aitari eroan orduko, neu ez nintzala kopia atera barik gelditu.

Gauzok Goiz-Argi aldizkarian 1975-n be orain zortzi urte esanda daukadaz. Eta orain barrero dinodaz Lauaxetaren olerkietan, kopiarik kopia, egin izan diran aldaketa batzuk salatzeke. Bere bizian argitaratu zituen olerkietan be, argitaldi batetik bestera, jazo leitekez utsen batzuk edo beste: baina gerokoetan, ugariago ikusten ditugu.

Ez da errez gaur euskerazko liburuak inprentatik uts barik ateraten. Irar-utsak iru ta lau bidar zuzendu bearra jazoten da sarri. Eta uts bat zuzendu dozunean, urrengoan lerro berean beste bi egiten deutesuez. Inoz ez dakizu noz egingo deutesuen azkenengoa. Geure aldizkari onetan ikusi geinken gauzea da. Onen aurreko zenbakian Tito Brandsmaren bertso batzuk sartu ziran euskeraz, eta ogei lerrotan iru uts datoz. Bakearen aldeko ototzean *olerki* irakurten da, *okerkeri* bear zan lekuan.

Aita Santik 1974n argitaratu zituen Lauaxetaren olerkietan, azken ordukoetan, agertu zan utsik, itzen bat galdu edo besteren bat oker ipini, eta olakorik. *Gaiak* aldizkariak argitaratutakoetan, uts batzuk zuzendu ziran baina bai beste batzuk egin be. Euskerazko aldizkarien ezin bestea edo alanbearra dala dirudi.

Aita Onaindiak inprentan daukanagaz ez dakit zer jazoko dan, baina, Jon Kortazar-ek eta emon deuskuen edizioan ez dogu utsik gitxi aurkitzen. Lauaxetaren bertsoetan batzuk, eta beste batzuk, bertsoen argigarri, azpian datozen oar ugarietan, Lauaxetaren itzak oker ulertuz eta abar.

Ona, esaterako, *Azken Oyua* olerkiaren azpiko oarretako uts batzuk. *Bearren naunean*: or *bearren* ori ez da *bearko*, ez *bear izango-ren* ordezkoa: *geien bear nauanean* esan gura dau. *Naizla* ezer izatekotan *naizala-ren* laburpena izango litzake. Lauaxetarena, jatorra, *naiala* edo *naiela* da. Oarra egin dauanak euskera batura ondo itzuli dau: *nazala*. Txarto irakurri eta ondo ulertuarena da emengo pekatua. *Leyartu* ez da *sikatu*, ez lehortu ez antzekorik. Lainoa ez dakigu zelan sikatu daiteken. Kristalaren antzak artu esan gura dau. *Bediz* ez da beste euskalkietako *bitza*, *bitez* edo *bitez* baino. *Zagiz* ez da *zaitz-en* ordezkoa, bezaitza edo *zaitzala-rena*. baino. Atzindu eta astindu be ez dira bat. Beste batzuetan datorren *ezabatu*, besterik ez da. Olerki baten azpian jartzeko naikoa dira. Eta beste olerkietako bi aitatzeke, *nekosta* ez da ez *nekoza* ez negu otza, erderazko *Cipres* baino. Eta *auts zia-k* ez dau puntarekin zer ikusirik. Arratialedean esaten dogun *auts zea-gaz* baino. Ez dakigu *autsak* non euki leiken puntarik.

Onango utsen errua nori botako deusagu? Irarkolako langilleai ez, aurki. Olango utsak, egitea ez da itzen bat jatea, edo oker idaztea, inprentako lanetan jazo oi dana. Ori olerkiak inprentarako gertau edo ara eroan dituanaren utsa *dx*

Erderazko bertsoetako uts andiak

Bear bada, luzeegi nabil idazten asi nazanean buruan nerabillan aritik kanpo. Ez zan nire asmoa oraingo argitaldiko testoa-ren utsak salatzea. Erderazko poemetan Lauaxetari ezarri dautsoezan utsak erakutsi nai nituen. Erderazko testoak zuzen irakurri eta oker andi barik emotea errezago egiten jake gure inprentetako langillerik geienai. Baina Lauaxetaren testoak oker emotean ez da eurena izan errua. Txarto irakurri eta txarto kopiatu

dituezen ez-jakina ta baldarkeria ikusten ditut nik or. Eurak izan baldarrak eta baldarkeri ori olerkariari ezarten dautsoe.

EREIN-en edizio onek Lauaxetaren poema bi emon deuskuz gaur arte inoz argitaratu bakotzat; bat euskerazkoa, eta erderazkoa bestea. Euskerazko ori ez da ineditoa, ez da orainarte argirik ikusi bakoa. ZER aldizkarian orain zortzi urte Aita Onaindiak argitaratua da; eta Muniategi olerkariaren eskutik artuta. Oi direan inprentako uts eta guzti argitaratua, ori bai, baina ez zan ez ezaguna. Ain zuzen, ZER aldizkaritik fotokopiatuta 1974ko argitaraldian sartuta daukat nik.

Erderazkoaren kopia be badaukat, olerkariak bere argazki ta guzti Zubillaga jaunari bialdua da, bertan esaten danez. EREIN-ekoak nik baino zori ohea izan dabe. Lauaxetak berak bere eskuz idatzirikoaren jabe izan dira, eta PAMIELA aldizkarian ezaguerazo deuskue, fotokopia ondoan daua. Eta au arritzekoa! Ez dabe ondo irakurten jakin. Eta aldizkari orretan emon deutsoen irakurkera bera emon deutsoe liburuan. Irakurkera okerra. Baina Lauaxetak ez ekien bertso ain baldarrak egiten; txukuntasun geitxoago erabilten eban orretan.

Itxi daigun aide batera soneto orri burutzat ezarrita dagoan erdal-esaera: «El hombre bien barbado y bien acreditado». Azkenengo itz au nekez irakurriko dogu Lauaxetaren eskuzko kopian. Nik daukadan makinazko kopian ez dabe argitu itz ori. Azkenengo silaba biak *-nado* ditu, eta ez *-tado*, alan nai olan be. Itxi daigun amairugarren bertso *pasa*, PAMIELAN *pasa* eta liburuan *posa* dana irar-utsa izan daiteke. Baina lenengo bertsoa emon deuskuen moduan emoteko ez dago eskubiderik:

«Esta barba cubrio ledn su marana».

Zer da ori? Eta olantxe agertu da bai *Patnielan* eta bai liburuan. Ain gauza gatxa ete zan zuzen eta ondo irakurtea? Nire kopiakoak, beintzat, ez dau or utsik egin:

«Esta barba cubrio con su marana
mi rostro de perfil en calma plena»

Con irakurri bearrean leon irakurri deuskue EREIN-ekoak, eta ez dabe or okerrik aurkitu eta lasai gelditu jakuz.

Beste uts bat egin deuskue, aldizkarian eta liburuan, bietan, sonetoaren azpiko erdal esaerea kopiatzean: «Amigo Carlos: el demonio mando no tiene». Ori irakurkeran, sikologoren bat asi leiteke buruari eragiten ia zer esan nai izan ete dauen olerkariak itz orreikaz, eta bear bada, Lauaxetaren sifiiskeriren bat or aurkitzen edo ikusten ez te dan. Baina ez dedilla inor kezkatu. Erdal esaera ezagun baten asiarea da: El demonio, cuando no tiene... (que hacer, en algo se ha de entretener). Lauaxetaren golgadi ona, umore ona besterik ez daigun billatu or.

Beste erderazko olerki bat *Plegaria postrera* titulutzat daukana da, Aita-Onaindiaren argitaraldian eta gero *Gaiak* aldizkarian, zuzen eta uts barik etorren. Kortazar-en edizio onetan irugarren eta laugarren bertsoetan itaun-markak oker doaz:

iQue mieles eh flor manan la dulzura?

iComo tus labios al besar mi pena?

Itxurarik ez daben bertsoak dira olan. Onelan izan bear eben:

iQue mieles en flor manan la dulzura

como tus labios al besar mi pena?

Agiri danez, bertso oso ezbardinak dira. Eta lorrinkeri geiegi da bertso bitan sartzeko.

Orraitio, amabigarren bertsoa Onaindiaren edizioan lez itxi dabe, ez deuskue aldatu: *Asi mi llanto se transforma en gracia?* Baina zetara dator azkenean jarri deutson barra: au-da, argitaratzaillak daukan kopian beste onetara datorrela:

Por eso mi llanto se convierte en gracia.

Bertso onek ez eban aitamenik merezi. Eta ezin dot sinistu Jon Kortazarrek eta Miren Billelabeitiak besteagaz bardintzat artzen dabenik. Bardintzat artu leikez biak kopiatzaille txar batek, edo erdal bertsoen legeetan ez-jakma dan batek, baina orretan eskoladun dan batek ez. Erdal-bertsoen legeak ondo ekiazan Lauaxetak eta ondo. betetan zituen, neurrian eta azentuetan. Emen kopiatzaille baldarrak amaika silabadun bertsoari silaba bat geiago ezarri deutso eta azentuak ankaz gora gelditu dira. Bertso

ori ez da Lauaxetarena. Zetako aitatu? Kanpoan gelditu bear eban. Kopiatzailleak geiago egin dau: *asi* eta *por eso, se transforma* eta *se convierte* bardindu, bata irakurri eta bere burutik bestea kopiatu. Or agiri da, or ikusten dogu eskola eta ardura gitxiko eskuak ibilli dirala gure olerkiaren bertsoak kopiatzen.

Goazen orain irugarren erdal-olerkera, *Yo llevo* titulutzat ipifii deutoenera.

Eta lenengo ta bein, argitaratzailleak zer dala-ta esan bear izan deuskue poema orrek Hernandez poeta gaztelarraren oiartzunak dituela? Andia da, orraitio, Lauaxetaren kritikolari bartzuen eragona: len,^ez jakina genduala, Manterolaren *Cancionero Basco* be ez ebala ezagutzen; gero, gixajoa, atzerrietako olerkariak irakurten bildur zala edo; orain, ez-jakifiaren guzurrari eutsi ezin deutoenean, ia danean kanpoko literaturen antz-emoille ta oiartzun egin nai deuskue. Baina *Yo llevo* olerki onetan nondik nora Hernandez erdaldunaren oiartzun Lauaxeta? Anakronismo garbia deritxot orri. Lauaxeta bestea baino bost urte zaarragoa dogu eta 1937n ilia, su-izkilluz emondako eriotzaz. Hernandez orrek andik bi urte geroago arte ez eban espetxeko illunperik ezagutu. Eriotzea parkatu egin eutsoen eta 1942n geixoz il zan. Nondik nora eta zetan izan bear eban Lauaxetaren poema orrek Hernandez-en oiartzunik?

Baina goazen arira. EREIN-ek emon deuskun testoa Aita Onaindiak *Gaiak* aldizkarian emona bera da, eta uts bardinekin. Bata eta besteak kopia beretik ibilli dirala dirudi. *El golpe del dolor* idatzi deuskue *al golpe del dolor* emon bearrean. Eta gero ez dabe jakin azkenengo bertsoaren utsa ikusten. Borreruari zuzenduriko itzok dira eta onela irakurri dituez:

«Si todos ante ti doblan la frente,
yo siento orgullo de levantar la mia».

Ziur egon, azkenengo bertso ori ez dau Lauaxetak idatzi. Kopiatzailleak lauskiturik dago, erderazko bertso-legez pote garbia da: silaba bat geiago, eta silaben taunkadea, edo seigarrenean, edo laugarrenean eta zortzigarrenean jon bear dauana, bear ez dan Iekuan. Bertso ori, *Gaiak* aldizkarian agertu baino

len, neuk argitaratu neban GOIZ-ARGI aldizkarian 1975ko idaz-lan baten. Ez neban poema osoa atera, azkenengo amabi bertsoak bakarrik. Eta azkenengo biak onetara:

«Si todos ante ti doblan la frente,
yo siento orgullo en levantar la mia».

Olantxe, poto barik eta erdera jatorragoan. *Yo siento orgullo de* orrek ez dau erdal-belarrietan ain jator joten. Bertso orreik atera nituen artikulu atan onela jarraitu neban: «Bertso auen egillea gizonen artean gizon zan, noski, eta ez zan ur bedeinkatu utsez bizi».

Ez; ez zan ur bedeinkatu utsez bizi. Kritikalari eta azterlari batzuk gure olerkari onen nortasuna, gizon maillan eta literato maillan, euren buruen neurrira ekarri nai izan dabe. Baifia ez, ez da ain neurri estuetan sartzekoa, eta kopiatzaille ez-jakifien utsak ez daiitsaguz berari ezarri bear. Lauaxeta ez zan erdalbertsogifian ain baldarra eta trebetasunik bakoa. Eta naikoa lotsa utsan bere buruari orretan moldagatx ez agertzeko.

Oraingo argitaraldi biok bero bero jarten deuskue ain gazterik eta emoirik ederrenen ustea sortzen ebanean galdu genduan olerkariaren nortasuna. Kortazarrek eta Miren Billelabeitiak ez deuskue argitaratu Ven, *Senor delakoa*, Aita Narkis karmeldarraren eskutik eldu jakuna. Aiztu edo egin jake.

Aita Santik inprentan oso aurreraturik daukan testoa osoa gorik emongo al deusku. Eta irakurle eta kopiatzaille txarren utsetatik garbiago itxi.

L. Akesolo

ERITXIAK